

DIRULAGUNTZA DEIALDIA, DURANGAR KIROLARIENTZAT

1. artikulua. — Xedea

2026. urtean zehar Durangoko goi mailako kirolariei laguntzeko diru-laguntzen oinarri arautzaileak ezartzea da deialdi honen helburua, durangar goi mailako kirolarien prestaketa eta partehartzea diruz laguntzeko autonomia, nazio edo nazioarte mailan 2026ean (2026eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra) Udalaren diru-laguntzak eta bestelako laguntzak arautzeko ordenantzaren 8. artikuluan ezarritako edukiarekin bat.

2. artikulua. Izaera eta erregimen juridikoa

Azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak arautuko du diru-laguntza, lege horren 22.1 artikuluekin bat etorruta. Aipatutako diru-laguntza Durangoko Udalaren 2026eko Aurrekontuetan aurreikusita dago, 2026-2027 Diru-Laguntzen Plan Estrategikoaren barruan, 2024ko abenduaren 19ko Osoko Bilkuran onetsia, eta bertan informazio hau dago:

Kodea: 4.3410.1.GMK

Diru-laguntza: Goi mailako kirolari indibidualentzako diru-laguntza deialdia.

Zenbatekoa: 15.000€

Partida: 41.3410.48001

3. artikulua. — Onuradunak

Diru-laguntza jaso ahal izango dute dagokion kirol-federazioak emandako edo homologatutako lizentzia duten goi mailako banakako kirolariek, 2026ean jarduera egin badute. Durangon erroldatuta egon beharko dute, gutxienez 2 urteko antzinatasunarekin, deialdi hau argitaratzen den egunean.

Udal mailako kirolaritzat hartuko dira, arestian ezarritakoa betez, oinarri hauetako 7. artikuluko taulan zehaztutako merezimenduetakoren bat lortu dutenak. Kirol-merituak estatu mailan, federazio bakoitzaren egutegi ofizialaren barruan egindako txapelketetan lortu behar dira.

Gainera, Durangoko Udalak, aurkeztutako merezimenduen arabera, udalerriko goi-mailako kirolaritzat aitortzeko eskubidea izango du, baldin eta, beren ezaugarri bereziak direla-eta, 7. artikuluko taulan ezarritako irizpideak betetzeko aukerarik ematen ez badie.

Kirol-arloko diziplinazko arau-hauste larri edo oso larri bat egiteagatik, edozein lurralde eremutako kirol-federazio batek etendura edo desgaitutza zigorrik ez izatea. Horretarako, ulertzen da ebazpen betearazle bat egotea zehatuta edo zehatuta dagoela, nahiz eta ebazpen hori irmoa ez izan.

Edozein lurralde-eremutako kirol-federazio batek kautelaz etenda edo desgaituta ez egotea balizko arau-hauste larri edo oso larriekin lotutako diziplina- eta kirol-prozedura baten ondorioz.

Kirolari onuradunek egunean egon beharko dute Durangoko Udalaren eta beste administrazio publiko batzuen zerga, tasa, arbitro eta zehapenen ordainketan.

4. artikulua. — Dokumentazioa aurkezteko lekua

Eskariak Udaleko erregistro nagusian edo **egoitza elektronikoan** aurkeztu behar dira Udalak horretarako jarriko dituen eskari-orrietan. Halaber, 2015eko urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozeduraren 39/2015 Legearen 16.4 artikulua aipatzen dituen lekuetan ere aurkeztu

ahal dira.

Eskariari dokumentazio hau erantsi beharko zaio:

a) Eskari orria behar bezala beteta.

b) Kirol merituak jasotzen dituen federazioaren agiria. Kirol-federazioa halakotzat aitortuta egon behar da Euskadiko kirol erakundeen erregistroan.

Durangoko Udalak, Bizkaiko Elkarreragingarritasunerako Nodoaren bidez eta dagozkion elkarreragingarritasun-zerbitzuen bidez, laguntza honen administrazio-izapideak egiteko eskatzen diren eskatzaileen datuen beharrezko egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu.

Arazoi teknikoengatik elkarreragingarritasuna ezinezkoa bada, Durangoko Udalak izapideak egiteko beharrezkoak diren datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango ditu.

Edozein kasutan, aurreikusitako ekimenari dagokion dokumentazioaz gain, entitate eskatzaileei behar besteko informazio osagarria eskatu ahal zaie aurkeztutako ekimena behar bezala baloratu ahal izateko.

5. artikulua. — Epea

Diru-laguntza eskatzeko azken eguna 2026ko azaroaren 20a izango da.

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago edo oinarrietako baldintzaren bat betetzen ez badu, hamar laneguneko epea emango zaio interesdunari akatsak zuzendu ditzan edo dagokion dokumentazioa gehitu dezan. Eta jakinaraziko zaio, halaber, hala egiten ez badu, bere eskaria ez dela kontuan hartuko eta, hala ebatziko da Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 68. artikulua aurreikusten dituen terminoen arabera eta, halaber, aintzat hartuta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 23.5 artikulua ezartzen duena.

6. artikulua. — Dirulaguntzaren zenbatekoa

1. Erakunde eskatzaileen artean banatuko den diru-kopurua HAMABOST MILA (15.000) euro da, 41.3410.48001 aurrekontu-partidari dagokiona.

2. Eskatzaile bakoitzeko diru laguntza bakarra emango da.

3. Araudi honetako diru laguntzak bateragarriak izango dira dena delako erakunde publiko edo pribatuek xede bererako eman ditzaketen bestelako diru laguntzekin. Edozein modutan, ez da gain finantzaketarik egongo, eta hala gertatuko balitz, diru laguntza murriztu egingo litzateke. Gain finantzaketa gerora emango balitz, eta dirua itzultzeko beharrianen bat baino gehiago izanez gero, dena delako pertsona edo erakunde onuradunak dagokion parte proportzionala itzuli beharko du Durangoko Udalak egin dion ekarpena aintzat hartuta.

7. artikulua. — Baloratzeko irizpideak

Diru laguntzak emateko eta zenbatekoa zehazteko irizpide hauek hartuko dira kontuan:



SAILKAPENA	LEHIAKETA		
	Mundua	Europa	Espainia
Txapelduna	30	25	20
Txapeldunordea	25	20	15
3.a	20	15	10
4.a-10.a	15	10	0
Hautatuak	Espainiar federazioa		
	10		
	Etorkizun handiko kirolariak (Bizkaiko Foru Aldundia)		
	15		

Diru laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko ondorengo formula erabiliko da:

$$\text{Puntuak} \times (\text{kreditu erabilgarria/puntuazio orokorra})$$

Kirolari bakoitzari dagokion kopurua aurreko taularen arabera puntuazioa aintzat harturik egingo da.

Gehienez ere, 1.000 euro emango dira kirolari bakoitzeko.

Diru-laguntzaz gain, deialdi honen onuradun den kirolaria Durango Kirolak-eko instalazioak erabili ahal izango ditu (Multijarduera Plus sarbidea) deialdi hau ebatzen den hilabetetik eta hurrengo urteko abenduaren 31ra arte. Gauzazko laguntza honek, indarrean dauden prezio publikoen arabera, hileko 59,00 euroko balioa du.

Diruz lagundutako gastuak izango dira ezbairik gabe jarduerari dagokien gastuak eta epearen barruan egiten direnak.

Orobat, ondorengo gastuak izango dira diruz lagunduko direnak:

- Federazio gastuak
- Nazio edo nazioarte mailako lehiaketen izen emateak
- Joan-etorriak
- Ostatua, kirol, lehiaketa edo entrenatze materiala
- Osasun azterketa edo fisioterapia.

8. artikulua. — Instrukzioa eta ebazpena

Sail eskudunaren informe teknikoa aztertu ostean, eta gazteria eta kirol arloko argibide batzordearen proposamenari ekinez, eskariak alkateordearen ebazpen bidez egingo dira, gehienez ere, hiru (3) hilabeteko epean eskariak aurkezteko azkenengo egunetik zenbatuta.

Aipatutako epea igaro ostean ebazpenik jaso ezik, ulertu behar da eskaria gaitzetsi egin dela, gerora egin daitekeen ebazpenaren kaltetan izan gabe.

9. artikulua. — Diru-laguntza ordaintzea

Diru laguntza eman dela jakinarazi bezain laster, diru laguntzaren %80a ordaindu ahal izateko izapideak egiten hasiko da, eta honetarako ez zaie inongo bermerik eskatuko onuradunei. Gainerako %20a, eman deneko diru laguntza justifikatu ondoren ordainduko da. Eta kontuan izango dira, halaber, 11. artikuluan aipatzen diren aspektu guztiak.

10. artikulua. — Betebeharrak



Deialdi honetako diru laguntzak jaso dituzten entitate onuradunek, Durangoko Udalaren dirulaguntzak eta bestelako laguntzak arautzen dituen ordenantzaren 6. artikulua ezartzen dituen betebeharrak bete beharko dituzte. Besteak beste, ondorengo hauek:

- a) Durangoko irudi korporatiboa kirol jantzietan txertatzea, eskatutako lehiaketa ofizialean. Behar bezala egiaztatutako federazioaren edo lehiaketaren araudiaren arabera ezin bada, berotze-eta/edo entrenamendu-jantzietan egingo da.
- b) Helburua betetzea, proiektua gauzatzea, jarduera egitea edo laguntza emateko oinarri den portaera hartzea.
- c) Durangoko Udalaren aurrean justifikatzea diru-laguntza emateko edo baliatzeko ezarritako betekizunak eta baldintzak betetzen direla, bai eta jarduera egin dela eta helburua bete dela ere.
- d) Diru-laguntza eman duen organoak egin beharreko egiaztapen-jarduketei men egitea, bai eta udaleko kontrol-organo eskudunek egin ditzaketen bestelako egiaztapen- eta finantza-kontrolak ere, eta aurreko jarduketetan eskatzen zaien informazio guztia ematea.
- e) Diru-laguntza eman duen organoari jakinaraztea diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste diru-laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik lortu duen.
- f) Jasotako diru-laguntza itzultzea, horretarako arrazoiren bat izanez gero.

11. artikulua. — Diru laguntza justifikatzea

Diru laguntza justifikatzeko, entitate onuradunak, **2027ko otsailaren 28a** azken eguna izanez, jarraian zehazten den dokumentazioa aurkeztu beharko du:

- a) Egindako jardueraren memoria, ahalik eta zehatzena. Bertan, diru-sarrerak eta gastuak erantsiko dira eta, halaber, aipatutako jarduerarako jasotako beste edozein diru laguntza publiko zein pribatu ere.
- b) Egindako gastuen fakturak. Diru-laguntza jaso duten helburu eta jarduera horiek (eskaeran adierazitakoak) gauzatzeko gastuen fakturak soilik eta horiek bakarrik aurkeztuko dira; hau da, ez dira onartuko beste edozein helburutarako egindako gastuen fakturak. Faktura eta egiaztagiria diru laguntza deialdiaren urte berekoak izango dira.

Faktura bakoitzarekin batera **ordainagiria** aurkeztu beharko da.

Justifikatu beharreko gastua ondorengo formulatik aterako da: aurrekontu depuratua bider emandako diru laguntza zati eskatutako diru laguntza depuratua. Justifikatu beharrekoa justifikatu ezik, proportzionaltasunaren araua aplikatuko da.

Diru-laguntza lortzeko lehiaketan parte hartu izana egiaztatzen duen dokumentazio grafikoa eta idatzia aurkeztea.

Fakturretan hauxe agertuko da:

- Erakundearen/eskatzailearen identifikazioa
- Hornitzailearen identifikazioa
- Fakturaren data
- Jarduera
- Zerbitzuaren deskripzioa

Ez dira onartuko:

- Elkarrekin barruko bazkariak, eta halakoak.

12. artikulua. — Dirua itzultzea

Justifikatzeko betebeharraren konpromisoak edo diru-laguntza honetan jasotako beste batzuk

betetzen ez badira, itzulketa-prozedura izapidetuko da, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 41. eta 42. artikuluetan eta hura garatzen duen 887/2006 Errege Dekretuaren 91. artikuluan ezarritakoaren arabera.

13. artikulua. — Araudi osagarria

Diru-laguntza honek ezartzen ez duenari dagokionez, honako lege testuak hartuko dira aintzat: Durangoko Udalaren dirulaguntzak eta bestelako laguntzak arautzen dituen Ordenantza; diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra; 887/2006 Errege Dekretua eta toki erregimeneko araudi bateragarria

14. artikulua. Datuen babesa

Durangoko Udalak kirolaren eta kirol-jardueren antolaketa eta sustapenaren eta erabilera publikoko kirol-ekipamenduen kudeaketaren esparruko datuak tratatzen ditu, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen arabera. Datu pertsonalak Durango Kirolak toki-erakunde autonomoari eta arloan eskumena duten beste Administrazio Publiko batzuei jakinarazi ahal izango zaizkie, hala nola Eusko Jaurlaritzari eta finantza-erakundeei. Interesdunak bere datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea du, bai eta datuon tratamendua mugatzeko edo aurka egiteko eskubidea ere, Udalaren helbidera edo dpo@durango.eus helbide elektronikora komunikazio bat bidalita. Halaber, informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu gardentasun-ataria: www.durango.eus